

Zk-6448

AGINDUA, 2004ko azaroaren 26koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko aginduaren bigarren aldaketarena.

Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduak aldaketa handia ekarri zien etxebizitza-eskatzailleek bete beharreko prozedura eta baldintzei. Horretarako, aintzat hartu zen, batetik, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Etxebideren Erregistroa arautzean eta etxebizitzak esleitzean pilatu duen esperientzia eta, bestetik, prozesu horretan ikusi dituen beharrak.

Horiek horrela, eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregistroa nolako den kontuan hartuta, eta batez ere inskripzio-kopuru handiak bere funtzionamenduan akatsak sortarazten dituen neurrian, aldaketa batzuk egin ziren, 2003ko abenduaren 16ko Aginduaren bidez. Ondorioz, gaur egun aldaketa batzuk egin behar dira eskatzailleek dituzten baldintzak araudiaren eskakizunei egokitzeko eta Erregistroko datuak osoagoak izateko, hain zuzen ere, eskatzailea nor den eta eskuratu nahi den araubidea zein den argiago jakite aldera. Horrela, Etxebideren eguneroko jarduna arindu eta hobetuko da.

Etxebizitza-eskatzailen Erregistroan egin nahi diren aldaketa tekniko eta funtzionamenduko aldaketa horiekin batera, ez da ahaztu behar erregistro hori ez dagoela gizarte-arazoetatik at. Hori dela eta, 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusten da etxebizitza-kopuru jakin bat gorde behar dela bai urrituentzat, bai adin txikiko seme-alabak beren ardurapean dituzten guraso bakarreko familientzat ere. Gaur egun, eta etxeko indarkeria eta sexu-erasoak pairatzen dituzten emakumei ematen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Hitzarmenak eta Berdintasunerako Lege-aurregitasmoak diotenez, gizartean behar berri bat sortu da: babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko lehenetasuna duten kolektiboan artean genero-indarkeria pairatzen dutenena lehenbailehen sartzeara.

Horri jarraiki eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuak 4 artikuluan xedatutakoaren arabera eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak azken xedapenetan lehenengoan ezarritakoaren arabera, hauxe

Nº-6448

ORDEN de 26 de noviembre de 2004, del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, de segunda modificación de la orden sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial.

La Orden de 14 de junio de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, supuso un cambio importante, en cuanto al procedimiento y requisitos que se exigen a los demandantes de vivienda, en base a la experiencia y las necesidades que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales va detectando a la hora de regular el Registro de Etxebide, y adjudicar viviendas.

Es así, que dada la naturaleza del Registro de solicitantes de vivienda de protección oficial, y en la medida que van surgiendo deficiencias en su funcionamiento, debidas principalmente a el gran número de inscripciones, por Orden de 16 de diciembre de 2003, se introdujeron unos cambios, siendo ahora necesario realizar unas nuevas modificaciones encaminadas a adecuar las condiciones que reúnen los solicitantes a los requisitos que exige la normativa vigente y conseguir que los datos que figuren en el Registro sean más completos y permitan identificar con mayor claridad al titular de la solicitud y el régimen de acceso al que pretenden acceder. Esto supone agilizar y mejorar la operativa diaria del Servicio Vasco de Etxebide.

Junto a estas modificaciones de carácter técnico y de funcionamiento del Registro de solicitantes de vivienda, no hay que olvidar que este Registro no es ajeno a los problemas sociales, siendo así que en el artículo 4 de la Orden de 14 de junio de 2002, se prevé la reserva en los sorteos de un cierto número de viviendas para atender las necesidades de personas con discapacidad y unidades monoparentales con hijos menores a su cargo. En este momento, como se concluye en el «Acuerdo interinstitucional para la mejora en la atención a las mujeres víctimas del maltrato doméstico y agresiones sexuales» y en el Anteproyecto de Ley para la igualdad, surge una nueva necesidad social que urge incluir entre los colectivos de atención preferente en el acceso a las viviendas de protección oficial, es decir, las víctimas de violencia de género.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002, de 12 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, y en la Disposición Final primera del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo

XEDATU DUT:

Lebenengo artikulua.— Paragrafo berri bat, d) idatz-zatia, gehitzen zaio babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko aginduaren 2.2 artikuluari. Honela dio:

d) Ez zaie alta emango eskabideei, baldin eta diru-sarrerak eskatzaileek etxebizitzak eskuratzeko hautatutako erregimenean sartzeko gutxieneko baldintzekin bat ez badatoz.

Bigarren artikulua.— Beste idazkera bat ematen zaio babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 4. artikulua 1-c idatz-zatiari. Honela geratuko da:

c) Beren kargura adin txikiko seme-alabak dituzten guraso bakarreko unitateei edota genero-indarkeria pairatzen dutenei zuzendutako etxebizitzaren erreserba, ezarritako proportzioaren arabera.

Erreserba horri lorturik, genero-indarkeria pairatzen dutenak alokatzeko etxebizitzak esleitzeko prozeduratan bakarrik sartuko dira.

Hirugarren artikulua.— Beste idazkera bat ematen zaio babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 5.4 artikulua d) idatz-zatiari, eta e) idatz-zatia eranstena. Honela geratuko da:

d) Genero-indarkeriaren biktimak.

e) Gizarte-laguntzako eskumena duen foru-erakundeak edo, hala dagokionean, udalak ezarritako beste edozein baldintza osagarri betetzea.

Laugarren artikulua.— Paragrafo berri bat sortzen da, hain zuzen ere babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 7. artikulua 5. paragrafoa. Honela dio:

5.— Eskabideko datuak eguneraturik egon beharko dira: babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileek egunean eduki beharko dituzte babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileen Erregistroan izena emateko aurkeztutako eskabidean emandako datuak.

Bosgarren artikulua.— Paragrafo berri bat sortzen da, hain zuzen ere babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 12. artikulua 7. paragrafoa. Honela dio:

7.— Babes ofizialeko etxebizitzaren Erregistroan baja emango zaie eskatzaileen identifikazio-datuak eguneratu gabe dituzten eskabideei, zeren eta ezin baitzaizkie helarazi Etxebizitza-eskatzaileen Erregistroak edo Visesa baltzu publikoak Bizigune programa kudeatzean edo Sailaren izenean etxebizitzak haztatzean bidaltzen dituzten jakinarazpenak edota esleipenak.

Seigarren artikulua.— Paragrafo berri bat sortzen da, hain zuzen ere babes ofizialeko etxebizitzak esle-

DISPONGO:

Artículo primero.— Se añade un nuevo párrafo d) al artículo 2.2 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, con el siguiente texto:

d) No serán dadas de alta aquellas solicitudes en las que los ingresos no se correspondan con los mínimos exigidos para acceder al régimen de acceso seleccionado por los solicitantes.

Artículo segundo.— Se da nueva redacción al apartado 1.c) del artículo 4 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, que quedará redactado como sigue:

c) Una reserva de viviendas, en la proporción que se establezca, destinada a unidades monoparentales con hijos menores a su cargo y/o víctimas de violencia de género.

Las víctimas de violencia de género sólo se incluirán en esta reserva en los procedimientos de adjudicación en régimen de alquiler.

Artículo tercero.— Se da nueva redacción al párrafo d) y se añade un nuevo párrafo e) al artículo 5.4 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, que quedará redactado como sigue:

d) Víctimas de violencia de género.

e) Cualquier otra circunstancia complementaria establecida por el órgano foral competente en materia de asistencia social o ayuntamiento, en su caso.

Artículo cuarto.— Se crea un nuevo apartado 5 del artículo 7 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, con el siguiente texto:

5.— Actualización de los datos contenidos en el expediente de demanda: los solicitantes de vivienda de protección oficial, deberán mantener actualizados los datos que figuren en su solicitud de inscripción en el Registro de solicitantes de vivienda de protección Oficial.

Artículo quinto.— Se crea un nuevo apartado 7 del artículo 12 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, con el siguiente texto:

7.— Serán baja en el Registro de solicitantes de vivienda de protección oficial, las solicitudes que al no mantener actualizados los datos de identificación del solicitante no permitan hacer efectiva las notificaciones y/o adjudicaciones que realicen el Registro de solicitantes de Vivienda y la Sociedad Pública Visesa, en su gestión de Bizigune o viviendas tanteadas en nombre del Departamento.

Artículo sexto.— Se crea un nuevo apartado 8 del artículo 12 de la Orden de 14 de junio de 2002, sobre

tzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduaren 12. artikulua 8. idatz-zatia. Honela dio:

8.– Babes ofizialeko etxebizitzaren eskatzaileen baja emango zaie erosketa-eskabideei, baldin eta diru-sarrerak bat ez badatoz erosketa-erregimenean sartzeko eskatzen diren gutxieneko diru-sarrerekin.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Aldaketa-agindu honek ez du eraginik izango agindu hau indarrean sartu aurretik hasitako esleipen-prozeduretan etxebizitza-eskatzaileek lortutako jarrera juridikoetan. Nolanahi ere, agindu honetan ezarritako kasuetan ere eman dakieke baja eskatzaile horiei.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 26a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Zk-6449

EBAZPENA, 2004ko urriaren 20koa, Etxebizitza sailburuordearena, Progen, S.A entitateari Leioako «Txorierri hutsa» 13B eremuan lurra erosteko eta urbanizazio-lanak egiteko finantziario kualifikatua esleitzeko dena.

Progen S.A. entitateak Leioako «Txorierri hutsa» 13B Eremuan lurra erosteko eta urbanizazio-lanak egiteko finantziario kualifikatua eskatzeari buruzko espediente ikusi da.

2003ko urriaren 29an, Jose Mari Urzelai Lazkano jaunak Progen, S.A merkataritzaren entitatearen izenean bidalitako idazkia eta dokumentazioa sartu zen Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean. Idazkian eskatzen da lurzorua eta urbanizazioaren inguruko finantzneurri buruzko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Aginduan jasotako hoberiak eman diezaizkietela, hain zuzen ere, Leioako «Txorierri hutsa» 13B Eremuan dauden lur-sail batzuk kostu bidez erosi eta lehenbailehen urbanizatzeko.

Eskari hori berriro 2004ko urtarrilaren 27an egin zen, aipatutako Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz.

procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial, que tendrá el siguiente texto:

8.– Serán baja en el Registro de solicitantes de viviendas de protección oficial, las solicitudes de compra en las que los ingresos no se correspondan con los mínimos exigidos para acceder al régimen de compra.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

La presente Orden modificatoria no afectará a posiciones jurídicas obtenidas por los demandantes de vivienda de protección oficial en procedimientos de adjudicación iniciados antes de la fecha de entrada en vigor de esta Orden. Lo anterior no impedirá que dichos demandantes sean dados de baja en los casos prescritos en esta Orden.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2004.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Nº-6449

RESOLUCIÓN de 20 de octubre de 2004, del Viceconsejero de Vivienda, por la que se adjudica a la entidad Progen, S.A, la financiación cualificada para la adquisición de suelo y urbanización en el Área 13B «Txorierri vacante» de Leioa.

Visto el expediente relativo a la solicitud de financiación cualificada para la adquisición del suelo y urbanización en el Área 13B «Txorierri vacante» de Leioa, presentada por Progen, S.A.

Resultando que con fecha de entrada de 29 de octubre de 2003, se remite al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales por parte de D. Jose Mari Urzelai Lazkano, en nombre y representación de la entidad mercantil Progen, S.A, escrito y documentación en el que se solicita se les conceda los beneficios recogidos en la Orden 30 de diciembre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre Medidas Financieras en materia de suelo y urbanización, para la adquisición onerosa e inmediata urbanización de los terrenos sitios en el Área 13B «Txorierri vacante» de Leioa.

Resultando que dicha solicitud se reiteró con fecha 27 de enero de 2004 atendiendo a lo dispuesto en la